



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO DEIA

Herri Lan eta Garraioetako Batzordea. Barikua, otsailak 15 (9:30)

Interbiak, Mirafloreseko zubibidearen zatia oinezkoentzako egokitzea, Artazako birbilgunean bide segurtasuna hobatzea eta Bizkaimoveren bitartez bideen egoereaz neguan emoten dan informazioa eztabaidagai izango dira Batzar Nagusietan

Bilbon, 2013ko otsailaren 14an.

Azken bilerea egin zanetik aste betera barriro batuko da bariku honetan, goizeko 9:30etan hasita, Bilbon Batzar Nagusietako Herri Lan eta Garraioetako Batzordea. Bizkaiko errepideakaz lotutako zenbait gai aztertuko dira bertan: Interbiak enpresaren finantziazioa, Mirafloreseko zubibidearen zatia oinezkoentzako egokitzea, Artazako birbilgunean bide segurtasuna hobatzea eta Bizkaimoveren bitartez bideen egoereaz neguan emoten dan informazioa.

Batzordearen batzarraren hasieran Interbiaken 37.900.000 euroko akzinoak harpidetzeko 2012ko azaroaren 20an hartutako erabagiari buruzko argibideak emon beharko ditu Itziar Garamendi Herri Lan eta Garraioetako Foru Diputatuak, Bildu Taldeak eskatuta, Talde horren eretziz aurrekontuetan 9 milioi euro erosiko zirala egoan arren. Era berean, Bilduk jakin gura dau zein dan Interbiak banketxeei eskatutako kredituen egoera, horreen amortizazioa, sarreraren defizitaren eraginarena eta etorkizuneko zorpetzeen planifikazioa.

Beste “ahozko erantzun-eske” baten bitartez, Bildu Taldeko Taldeburuorde dan Aitor Torre jaunak argibideak eskatzen deusaz Herri Lan eta Garraioetako Foru Diputatu andreari jakiteko zein dan Mirafloreseko zubibidearen zatia oinezkoentzako egokitzeari buruz orain 7 hilebete dirala eskatutako azterlanaren egoera edo aurreikuspena. Hori dala-ta, joandako urteko ekainaren 5ean Arauz Besteko Proposamen bat onartu zan Batzar Nagusietan, non eskatzen jakon Aldundiari eze hila bete biko epean aurkeztu dagiala Mirafloreseko zubibidearen zatia oinezkoentzako egokitzeari buruzko azterlana, indarrean dagoan legedian oinarrituta, modu horretara erraztu ahal izateko Miribilla eta Santutxu auzoen arteko mugikortasuna.

ARTAZAKO BIRIBILGUNEA ETA BIDEEN INFORMAZINOA NEGUAN

Batzordearen bilerea amaitu aurretik Bizkaiko Talde Popularrak aurkeztutako Arauz Besteko Proposamen bi eztabaidatuko dira, Aldundiari eskatzeko “barriro atondu dagiala Artazako biribilguneako trafikoen banaketea Getxorako noranzkoan”, helburutzat izanik erreil bat gehiago jarrea Artazako biribilgunean Getxorantza, Uribe-Kostako autobidera sartu nahi izaten dabelako Artazara heltzen diran 99.000 ibilgailuetatik 72.000 ibilgailuk, Trafikoaren bilakaerari buruzko 2011ko Liburuan agertzen danaren arabera.

Batzordeari amaiera emoteko, Bizkaiko Talde Popularrak egindako eskari bat eztabaidatuko da, hain zuzen be Bizkaimove izeneko Aldundiaren webgunean errepideei buruz emoten dan informazioa osatuagoa izan daiten eta mendateetako errepideetako egoera eta datu meteorologikoak be emon daitezala “Bideen egoera” deritxan atalean.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

CONVOCATORIA DE PRENSA

Viernes, 15 de febrero (9.30 horas). Comisión de Obras Públicas y Transporte

Interbiak, el tránsito peatonal en el viaducto de Miraflores, la seguridad vial en la rotonda de Artaza y la información invernal a través de Bizkaimove, a debate en las Juntas Generales

Bilbao, a 14 de febrero de 2013

Una semana después de su última reunión, la Comisión de Obras Públicas y Transporte de las Juntas Generales vuelve a reunirse mañana viernes día 15, a partir de las 9.30 horas, en Bilbao. La sesión recorrerá diferentes asuntos relacionados con la red de carreteras de Bizkaia: la financiación de Interbiak, el tránsito peatonal en el viaducto de Miraflores, la seguridad vial en la rotonda de Artaza y la información invernal a través de Bizkaimove.

La sesión comenzará con las explicaciones de la titular del departamento foral de Obras Públicas y Transportes, Itziar Garamendi, que a petición del grupo Bildu, deberá informar a la cámara vizcaína de la suscripción de acciones de Interbiak aprobada el 20 de noviembre de 2012, por valor de 37,9 millones de euros, cuando estaban presupuestados 9 millones, según la coalición abertzale, y también sobre los préstamos solicitados por esta sociedad a diferentes entidades bancarias, así como la "amortización de estos créditos, la incidencia del déficit de ingresos, y la planificación de futuros endeudamientos".

A través de otra "pregunta oral" dirigida a la responsable foral de carreteras de la Diputación, el portavoz suplente de Bildu, Aitor Torre, reclama información sobre el "estado o la previsión de entrega" del estudio sobre la adecuación del viaducto de Miraflores para el tránsito peatonal, en base a una Proposición No de Norma aprobada el 5 de junio del año pasado en donde se instaba al ejecutivo foral a presentar en el plazo de 2 meses un informe de movilidad para comunicar a pie, en base a la legislación vigente, los barrios de Miribilla y Santutxu a través de este puente.

ROTONDA DE ARTAZA E INFORMACIÓN INVERNAL

La comisión concluirá con el debate de dos Proposiciones No de Norma del grupo juntero popular. En una, esta formación busca el apoyo parlamentario para instar a la Diputación a "redibujar la isleta de reparto de tráfico en la rotonda de Artaza sentido Getxo" con el objetivo de habilitar un carril más para los vehículos que se dirigen en dirección al corredor de Uribe-Kosta, ya que de los 99.000 vehículos que llegan a esta rotonda por La Avanzada, 72.000 van en esta dirección, según los datos que aparecen en el Libro de Aforos de 2011, recogidos en la iniciativa popular.

La sesión se cerrará con la petición de este grupo para que Bizkaimove, la página web foral que informa sobre las incidencias y la situación del tráfico en el Territorio, complete la información sobre el estado viario de los puertos e incorpore datos meteorológicos en el apartado de "Vialidad Invernal".